

<https://ikas.eus/spip.php?article1115>



# Milaka eta ehunka

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Olerkia - Olerkiak - Luixa Giltzu - Aita-amen besta -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 20a

---

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guztiak

erreserbatuak

---

*Ene bihotzak baditu ehunka lore,  
xuri, gorri, urdin, more,  
primaderako pentzeen pare.*

*Ene bihotzak baditu milaka pindar,  
zeruak duen hainbat izar,  
planeten arteko ortzadar.*

*Ene bihotzak baditu ehunka uhin,  
itsas zolako leize eta lamina arrain,  
uharteetako altxor harrien dirdira fin.*

*Ene bihotzak baditu mila mendi,  
ttiki borobiltsu, edo xut handi,  
haien puntan betiko bakea geldi.*

*Ene bihotzak baditu ehun xendera\*,  
denek daramate etxe berera,  
ni sortu nauen sabelera.*

Luixa Giltzu

\*xendera : xendra